

32

ÉDITION EN BASQUE LABOURDIN

F.V.D.

Ecco Venio! & Ecco Ancilla!

**AITA**  
**MICHEL GARICOITS**

Betharrameko Bihotz Sakratuaren aphezen congregati-  
onari hastapena eman duen iren  
eta *rénérable* declara-  
tua izan denaren  
**BIZITZEA**

PREZIOA: BI SOS.

*Vu et permis d'imprimer :*  
† FRANÇOIS, Evêque de Bayonne.

—  
**AURKIBIDEA**  
—


I. Michel Garicoitzen sortzea eta haur-tazuna.....	1
II. Michel Garicoitz apheragai Airaco, Aki-zeco, eta Larresoroco Semenarioan..	7
III. M. Garicoitz bicario Cambon, escola emaile, buruzagi Betharrameco Semenarioan.....	9
IV. M. Garicoitzec hasten du Yesusen Bihotz Sacratuco aphezen Congregazionea..	12
V. Acten ditu asco escola eta aphez etche.	16
VI. Aita Garitcoitzen eguna.....	20
VII. Bere herrazen ongi egile.....	23
VIII. Zembeit hitz Aita Garicoitzen bertuten gainean.....	26
IX. Aita Garicoitzen asken egunac.....	31
X. Saindu fama. Gauza miragarriac. Errespetagarri declaratua da Aita Garicoitz.	

—  
Anhitz atseginekin diogu ez dugula nahi Eliza Ama Saindua baino aitzinago juan, erranez liburu ttipi huntan aurkhitzen diren gerthagariak mirakuiluzkoak direla ; eta seme on batzu bezala humilki jardesten garela Elizak bere sainduen aldaren gainerat alchatzeko establitu dituen erreglamendueri.

M-68881  
F-72812

AV  
30579  
2RV  
3255





F. V. D.

# MICHEL GARICOÏTZ

AITA MISIONESTAREN BIZIA




I. — MICHEL GARICOITZEN SORTZEA ETA HAURTASUNA. — GARICOITZ GAZTEA ARTZAIN IBARREN ETA GARRUZEN, GERO ESCOLIER ETA MUTHIL, DONAPALEON ETA BAYONAN.

Badire Betharramen Aita Misionest batzu Jesusen Bihotz Sacratuco Aphezac deitzen direnac. Misionest horien etchea eta Congregazionea Aita Garacoitzec zituen hasi eta fincatu; bera izan zen horien lehen buruzagia.

Aita Garacoitz sortu zen Dona-Isti-Ibarren, Aphirilaren 15<sup>an</sup> 1797<sup>an</sup>. Haren aitac izena zuen Egnaut; amac aldiz Gachina Etcheberry. Laborantzatic eta arthalde baten mozkinetarie ziren bizi; baina denbora gaichto hetan ez baitzen errech bizitcea, doidoia zuten egiten beren eta bere familiaren haztecoa. Ordainez Yainco onac erlisione bizi batez dohatuac zituen. Elizac eta erlisioneac bazuten orduan hainitz yasaiteco: aphezac edo ihes yoanac ziren, edo gordeca behar zuten ibili. Garicoitz aita amec egin ahalaz laguntzen zituzten; heyen zoriona zen aphezeri bere etchean aterbe emaitea eta gehiago gorderic ezin atchic zitzazketenean irriscuric gabe, Egnautec laguntzen zituen gauetz gau oihanac eta mendiac barna Espainiaco mugaraino. Hainitz hola escapatu

ziren hari esker: ikusico dugu laster Yaincoac ez  
zuela caritate eder hori saristatu gabe utzi.



GARICOITZ GAZTEA BERE ETCHECO, ARDIEN ZAIN

Elizac hetsiac eta aphezac casatuac zirelacotz,  
haurra ezin bataiatu zuten sortu eta sei hilabethe-  
ren buruan baizic. Ura copeta beheara joaiteari-  
kin, condutzen dute haurra bere escu ttipiaz lotu  
zitziola aphezaren liburuari eta urratu zioela.

Hortic ageri zen haurraren yeitea zoin zen bere  
baitharic suharra eta borthitza eta izanen zuela

ematzearen eta moldatzearen beharra. Uruski Michelen ama emazteki funtsezcoa zen, bere eginbideac ongi ezagutzen zituena, eta haren lan bakhar eta oroz gainecoa izan zen bere semetic giristino on baten atheratzea. *Izan ez banu ene ama, zuen erraiten Michelec berac gerozlic nigarra begian, izan ez banu ene ama on eta Yaincotiarra ezagutzen dut gaichtagin bat atheratuco nintzela. Ttipi ttipilic eman zautan bekhatuaren beldurra, eta laur urthetan gorphutz guzia ikaran yartzen nintzan, suco garrac iracusiz erraiten zautanean: Ene haurra, su hainitz ikharagarriago baletara ditic Yaincoac bethicotz aurdikico bekatu mortalic egiten dulen haurrac. Dohatsu holaco amac dituzten haurrac!*

Bere herrico escola ttipian zuen Michelec ikhasi iracurtzen eta ichcribatzen. Haren yakitatea ez zen han urrun hedatzen ahal. Bainan yadanic ageri zen zer izpiritu zuzen eta ernea zuen ekhartzen eta haren lagunec aithortcen zuten gogotic escolaco lehena zela. Ikhus zezaken ere nor nahic mendian bere liburu ttipia escuetan, bere aitaren ardien zain zagoelatic: laster hola ikhasi zuen herrico escolan ikhas zitaken guzia.

Escolaco hartzeric hoberena iracusten zuen beraz Michelec: bainan haren burhasoac ez ziren aski aberats haurraren luzaz escolan ibilaraz-teco, eta behar izan zuen hasi bere ogiaren lanetic irabazten. Michel gogotic lotu zen lanari eta ez zen artzainic hari yoanen zionic arthaldearen erabiltzen.

Handic laster igorri zuten Garroze-Onasora, Donapaleoco ondora, eta han ezarri artzain Anghelu deitzen zen laborari baten ethean.

Hura bezala, eta ez lecu hetaric urrun bi mende eta erdi lehenago artzain izan zen bere hurrean yondoni Bizente Paulocoa.

Michelec hain ongi egin zuen bere nausiaren gogora, non doblatu baitzioten soldata: eman ziozcaten hogoi eta hamar luis eta ahari bat:

bertzalde bere solasetan bazituen athera aldi batzu hain zuhurrac eta zenzuzcoac, non deitzen baitzuten *Doctorra*.

Eta bizkitartean ez zuen oraino lehen cominionea egina : bainan ez zen haren falta. Denbora hetan ez zen cominiatzen hamalau hamabortz urthetan baizic. Gutizia handia zuen cominiatzeco eta haren gutizia bethi eta gehiago emendatuz zohan. Zer egiten du egun batez ? Badohaco bere baitharic yaun erretorari eta galdegiten dio ez zaionez oraino haizu izanen lehen cominionearen egitea.

Yaun erretor harec Barbaste zuen izena eta zen aphez bat yakitate eta bertute handicoa. Mintzatu zitzaion haurrari Gorphutz Sainduaz, bainan erranez choilki zembat zen Sacramendu hori ikharagarria, Jesu Cristo zenbat zen Jainco handi eta saindua zenbat garbi izan behar zen eta zenbat artharekin preparatu Sacramendu hortara hurbiltzera menturatzeco. Ezin daitake erran aphezaren solas horiec nola ilhundu zioten Micheli bihotza : ez zuen gehiagoric ez janic lethi lehen cominionea gogoan : gaicho haurrac senditzen zuen bere bihotza Jesu Cristorentzat dena amodioz bethea, eta casic iracutsi zioten Jesus zela Yainco bat ikharagarria eta harentzat lehar zela izan amodio baino beldur gehiago.

Bizkitartean Yainco maiteac ez zuen luzaz utzi ilhundura hortan. Berac condutzen zuen nola egun batez bidean heldu zelaric bere arthaldearekin bethi bezala ilhun eta triste, bat batean bozcario handi batec gainditu zion bihotza ; haren izialdura eta beldurcunde guziac ezeztatu ziren eta hain handia izan zen haren zoriona, non ahantzi baitzitzaizcon bere arthaldea, bere burua bera eta batere ohartu gabe buruz yuan izan baitzen bide bazterreco harrasiaren contra ; han zen berebaitharatu. Handic laster izan zuen lehen cominionearen



egiteco zoriona. Cominiatu eta bi edo hirur urtheren buruco itzuli zen bere burhasoetara : hamasei urthe zituen ; bainan orducotz casic gizon bat egina zen. Bizkitartean yaincoac yadanic adiarazia zion bere deia. Etchera zenean, Michelec erran zion aitari, apheztu nahi zela. Aita harritzen da ; ihardesten dio ez direla hec aphezteco behar diren gastuen egiteco ahalean, giristino on izan daitakela munduan ere eta ez duela amestu behar Yaincoac sorrarazi duen estatutic atheratzea. Bainan zerc traba dezake Yaincoaren nahia ? Haurra bethi eta orotan usatua zen aitari obeditzen ; ez zen beraz menturatu deusen ihardestera : ichilic gelditu zen eta eman zen othoitzari, bere chedeari ukho egin gabe. Michelec bizi zuen bere amacho, emazteki on eta Jaincotiarra, muthico gaztea hainitz maite zuena ; Michelec ere maite zuen eta erraiten ziozkan gogoan zituen guziac. Amachori beraz erran zion nola nahi zaitaken apheztu eta zer iragan zuen aitarekin. Amachoc ongi hartzen du, emaiten dio curaye, eta manatzen du egin dezan hañitz oithoitz, harec ere eginen duela, diolaric Yaincoac ongi nahi balin badu aphez izan dadin, emanen diozcala bere bocazioneari yarraikitzeo laguntzac. Ezin gehiago urus gelditu zen Michel ; ezen amachoc emaiten zion noizbeit bere chede saindura helduco zelaco esperantza.

\* \* \*

Orduco yaun erretora Donapaleon zen Mus de Borda. Gauza yakina da, denbora hetan hatchemaiten zituzten aphez guziac hiltzen zituztela, non ez zuten arnegatzen beren apheztasuna. Yaun erretor errespetagarri horrec sainduki atchiki zuen bethi bere ordena eta biziaren galtzeo menean egon zen bere populuaeren artean. Zenbat aldiz gaichtagineri escapatzeco,

ez zuen gorde lecu segur bat causitu Michelen amachoren etchean ? Yaincoac ez haren aphezac ez zuten ahantzia zor hori.

Donapaleoco yaun erretoraren gana doha beraz emazteki chaharra. Mintzatzen zaio Michelez, aphezteco luken chedeaz, eta galdegiten dio argi eta laguntza. Aphezac errechki ezagutu zuen Yaincoa zabilala, eta segur Yaincoac haurra apheztera deituz, yende on hec nahi zituela saristatu aphezentzat egin zutenaz. Handic zenbeit egunen buruco, Michel muthil zen Donapaleoco yaun erretoraren etchean latinaren ikhas-ten hasteco yaun erretorarekin.

Hamazazpi urthe zituen orduan Michelec: bairnan haren yakitatea ez zen handia ; doidoia zazkien franses hitz bakhar batzu.

Ofizio guzietan hastapenac gaitz dire: Michel ere penatu zen latinari ezin ohartuz. Bairnan yaincoac laguntzeco eman izan zion adichkide saildu bat, Evarista Etchecopar, hura baitzen haren adineco muthico gazte bat, aingeru baten parecoa ; gazte gaztea zelaric, Yaincoac deitu zuen bere gana ; bairnan Michelec bere bizi guzian atchiki zuen haren orroitzapena eta berac erraiten zuen ez zela behinere aldarerat igaiten harentzat othoitz egin gabe.

Bertze orduz Bazilio eta Gregorio bi saildu handiec Athenaco escolan bezala, Michelec eta Ebaristac ez zuten bihotz bat baizic, ez zuten ere chede bat baizic, aphez saildu bilhacatzea. Horra zertaco urrun egoiten ziren bere lagun yostatzea baizic gogoan ez zutenetaric ; biac bacarric elgarrekin mintzo ziren zeruco gauzez eta elgar sustatzen zuten geroago eta sailduago izaitera. Arratsetan yaun erretoraren etchean luzaz hari ziren liburutan arrechina argiz.

Ebarista Michel bairno yakintsunago zen eta laguntzen zuen latinaren ikhas-ten. *Egun batez burua hautsia hari nintzen, condatzen zuen Gari-coitzec, latin lerro bat ezin itzuliz fransesera.*

*Ebarista hurbiltzen zaut eta hitz batez agertzen daut nihondic ere hatcheman ez nezakena : hola nintzen haren laguntzarekin batean emeki emeki hasi ohartzen* <sup>1</sup>. Bainan ohartzuz geroz laster aintzinatu zen gure gizona.

Donapaleoco yaun erretorac egin zuen behar zueta escola handiago batetara Michel igorri ; yadanic laneco amodio handia zuen : ikhusi guziac ikhasten zituen eta ageri zen casco handico gizona athera behar zela. Muthico gazte hortaz mintzatu zitzaion beraz bere adichkide Bayona Catredaleco yaun erretorari, deitzen baitzen Murde Eyherabide. Hunec sarrarazi zuen Michel Aphezpicutegian muthil, han escolen segitzeco, muthilgoa egiten zuelaric, eta ordu beretic abiatu zen hirico escola batean ; Murde Dargagneratz apheza zen escola hartaco buruzagi eta handic athera dire asco gizon ongi yoan direnac munduan eta asco aphez saildu.

Laster ohartu zen nausia muthico gazte hura zoin zen izpiritu handicoa : bertzalde miragarri zen zer lehiarekin Michel Garicoitz yarraikitzen zen bere nausiaren eracuspeneri : gau eta egun arte guziz liburutan hari zen, othoitzaz eta sacramenduez berritzen zituelaric bere indarrac eta bere nausiaren contra zuen errencura bacarra hau zen, ez ziotela lanic aski emaiten bere escolier gazteri.

## II. — MICHEL GARICOÏTZ APHEZGAI AIRACO, AKIZECO ETA LARRESOROCO SEMENARIOAN.

Ikhusiz zoin ongi zohan ala yakitatean ala bertutean yaun Aphezpicuaren segretarioac, Murde

1. Ebarista Etchecopar, Donapaleon sortua 1802 eta hila 1817 hamabortz urthetan. Haren ilobetarie bat, Auguste Etchecopar, apheztu zen eta sartu Betharramen. Garicoitzec hain maite zuen eta hainbertze estimatzen, non ezarri baitzuen misionest gaien nausi 27 urthetan. Geroago Aita Etchecopar Congregazione guzico buruzagi egina izan zen, eta 24 urthe cargu hortan emanic, hil izan da Apherilaren 13<sup>an</sup>, 1897<sup>an</sup>.

Honnert aphezac, hainbertze maitatu suen Michel, non haren escolatzea bere gain harturic, bere gostuz ezarri baitzuen Airaco Semenario ttipian. Ordu tic bertze lanic gabe Michel libro izan zen bere liburu maiteri lotzeco.

Airaco Semenario hartan zuten elgar lehen aldicotz ikhusi Aita Garicoitzec eta Aita Guimonec; ikhusi orduco elgar maitatu zuten eta adichkide handi egon dire hil arteraino. Aita Guimon ere escualduna zen, Barcochen sortua 1797<sup>an</sup> Buruilean eta hila da Buenos-Ayresetan, Mayatzaren 21<sup>ean</sup> 1861<sup>ean</sup>.

Ichtudiant gazteac laster eta ongi acabatu zituen han latinaren ikhasteco egiten diren escolac, eta Umiasaindu irian 1819<sup>an</sup> sartu zen Akizeco semenario handian aphezen escolen hasteco. Semenario hartaco buruzagia zen Murde Dupoy. Bere ichtudiant berriarekin ezagutzac egiteari kin huna zer erraiten zuen Jaun aphez horrec : *Ez banaiz ni hainitz tronpatzen, mulhico gazte horrec aipharazicodu oraino bere burua.*



Michel Garacoitz ez zen luzaz egon Akizen. Handic bigarren urthearen acabantzan, 1821<sup>co</sup> bacantzetan, buruzagi berri bat ezarri zuten Larresoroco Semenario ttipian, Murde Claverie, eta Yaun aphez hori ongi aditzen baitzen gizonetan, galdegin zuen Michel Garacoitz berekin eremaitea eta M<sup>gr</sup> d'Astros yaun Aphezpicuac on hartu zuen haren galdea. Horra beraz gure ichtudiant umila bere aldian nausi ezarria.

Bethico khar berarekin lotu zen bere ofizio berriari, ez zen harec egiten ez zuen lanic : haurren zaintzea, heyer escola emaita, bertze nausien aldi aldizca laguntzea, orotaco bethi prest zen Michel Garicoitz. Eta zoin ongi zakien haurrekin egiten : yostatzeco tenorean, haur bat bezala libertitzen zen heyekin; guziac ondotic zituen,

hain zuten oroc maite ; bainan hargatic nihori ez zioten hari baino hobeki obeditzen. Ikhusteco zen chilincha hasi orduco nola harekin ziren haurrac yosteta guziac utziric lotzen ziren bere liburueri, hala egin behar baitzuten bada harekin ongi yoaitecotz. Azco aldiz canpoco yendeac gelditzen ziren choratuac gauza horri beha. *Zombat ongi egiten zuen eta zoin zen maitatua*, erraiten zuen Murde Franchisteguy, Bayonaco Bicario yeneralac.

1823<sup>an</sup> Eguberritan izan zen aphez ordenatua. Ezin daitake erran zoin kharsuki zuen erre-zibitu Ordena saindua ; ala bainan ez zuen ordu artean deus bertzeric izan gogoan, baizic ere aphez saindu bat bilhacatzea.

III. — MICHEL GARICOITZ, BICARIO CAMBON, LEHENIC ESCOLA EMAILE, GERO BURUZAGI BETHARRAMECO SEMENARIO HANDIAN.

Urtharrilaren lehenean 1824<sup>ean</sup> izendatua izan zen Camboco bicario. Herri hartaco yaun erretora, Murde Hardoy, zahartua zen eta paralesiaz yoa, beraz casic ezindua. Garicoitz seme on bat bezala izan zen harentzat. Egun oroz bere mezaren ondotic, bazohan yaun erretoraren bilha haren elizarat laguntzeco ; eta hunkigarri zen amultsutasun batekin eremaiten zuen casic besoetan aldareraino.

Herrico carga guzia nahi eta ez yaun bicarioaren gain zen ; predicatzea, cofesioen entzutea, berac behar zituen oro egin : bainan Garicoitzec haste hastetic buru egin zioten lan guziri apostolu baten kharrarekin eta zuhurtziarekin : hain ongi zituen predicuac moldatzen non predicari fama eman baitzioten berehala eta hainitz ongi egiten baitzuen arimetan. Yaun erretor zaharrac yadanic emana zuen ardura sacramenduetarat hurbilzeco plegu ona ; yaun bicarioac emendatu zuen oraino deboziona herrian : bere egin ahal

guziez maitarazten zioten orori Gorphutz Saindua; ez zuen bertzeric predicatzen, baizic ere behar zela ardura cominiatu, hortan zirela ardies-ten grazian irauteco eta bekhatutic begiratzeco indarrac eta laguntzac. Bainan oroz gainetic maite zuen gauza, zen haurreri catichima egitea. Atheratzen zena bada pasayatzera, laster icusico zinuten bide hegian harri baten gainean yarri eta hurrez inguratua, heyeri catichima iracusten. Haurren ondotic haren adichkide lehenac ziren yende beharrac eta eriac: loriatzen zen heyen ikhusten, consolatzen eta laguntzen bere ahalaren arabera.

Garicoitz ez zen luzaz egon Cambon. Bi urtheren buruan, Mgr d'Astros, yaun Aphezpicuac igorri zuen escola emaitera Betharrameco Semenari handira: bertze chederic ere bazuen yaun aphezpicuac. Semenarioco buruzagia, Murde Lassalle, lauetan hogoi urthetara hurbildua zen: nahi eta ez adin hortaco buruzagi batec bazituzken asco gauza erortzerat edo flacatzerat utziac; Garicoitzen gainean condutzen zuen yaunaphezpicuac guzien chuchentzeco eta ez alferretan. Escola emaile berria han sartu eta denbora laburric artean bertze aireric hartu zuten gauzec; bertze bat bilhacatu zen Semenaria.

Handic laster hil zen Murde Lassalle buruzagia eta haren ordain yaun Aphezpicuac ezarri zuen Garicoitz buruzagi. Nausi sartu zen phon-ducic, ez zen haren kharraren pareric gauza guzien chuchen ibilarazteco eta guziz aphezgal guzien ahalaz argitzeco eta saindutzeco. Denbora hetan ezagutu duten aphezac orrhoit dire oraico egunean oraino haren predicu eta abisu sarcorez. Bainan predicu guziec baino indar gehiago zuten haren etsenpluec. Ezti eta amultsu bertzentzat, gogor bere buruarentzat, lan guzietan lethi behena, ez zuen nahi deus berehecunderic. Bi escola egiten zituen egunean, lau edo bortz oren



BETHARRAMECO CAPERA AINTZINA

hartzen baitziozcaten, gero artetan hari zen caperan cofesatzen, edo yoaiten zen Igonera <sup>1</sup>, serora beltchen comentura, hango serora gaiez baitzen cargatua : egunaren artean ez zen harentzat lana eta othoitzza baizic eta arratsa heldu zenean, lotzen zen bere liburueri. Eta zenbat aldiz ez zuen biharamunac hatchemaiten oraino bere liburuekin !



Denbora hartan berritu zen Bayonaco yaun Aphezpicua. Mgr d'Arboue Yaun Aphezpicu berriac nahi izan zituen diosesaco aphezgai guziac Bayonaco Semenario handirat bildu ; Betharramen ez zituen utzi escolac yadanic han hasiac zituztenac baizic eta hauc apheztearekin, 1834 aren acabantzan, Semenarioa gelditu zen hutsa, eta Murde Garicoitz buruzagia bacarric Murde Guimon bere lagunarekin. Murde Guimon hastetic izana zen misionest Azparnen ; predicari ederra eta famatua, hainitz ongi egiten zuen escual herrian, bainan 1830<sup>co</sup> nahasmenduac abiatzearekin, behar izan zituen misioneac utzi, eta escola emaile zen geroztic Betharramen.

IV. — MURDE GARICOÏTZEC HASTEN DU YESUSEN BIHOTZ SACRATUCO APHEZEN CONGREGAZIONEA. HAREN LEHEN LAGUNAC. ATERBE EMAITEN DIOTE ESPAINIATIC CASATU CAPUTCHINERI. EDERTZEN DITU BETHARRAMECO AMA BIRYINAREN CAPERA ETA CALBARIOA. Mgr LACROIX APHEZPICUAC ETA AITA SAINDUAC ONHARTZEN DUTE CONGREGAZIONEA.

Aspaldian Murde Garicoitzec bazabilcan gogoan behar zituela zenbeit aphez Betharramerat bildu, misionen herrietan emaiteco eta muthico gazten

(1) Igon da herri bat Betharrametic oren baten bidean. Serora beltchec han badute bere etche nausietarie bat.



escolatzeco. Chede hortan fincatzen zuen eta berotzen serora saindu batec, deitzen baitzen *sœur Elisabeth*, serora beltchen hastailea eta buruzagi lehena. Iduritu zitzaion Murde Gari-coïtzi orduan zela bere chedearen obratzeco tenorea eta Yaun Aphezpicuari galdegin zion bere baimena. Beldurrez eta misionest berriec ez zezaten egin beren bizitzecoa eta geldi ziten diosesaren bizcar, Mgr d'Arbou Yaun aphezpicuac ez zuen ongi hartu haren galdea. Dela haren bocazio-nearen frogatzeco, dela ez zitzaiolacotz iduri Yaincoaren ganic heldu zela, letraz igorri zion manua ethor zadien Bayonaco semenariora escola emaiten hartzeco. Betharrameco buruzagiarentzat Aphezpicuaren manua Yaincoaren beraren manua zen. Biharamunean Bayonan zen, prest bere escolaren hasteco. Hoin ichil eta hoin laster obeditzen ikhustez harritua, Yaun Aphezpicua heldu zaio Semenariorat eta erraiten dio : Aski da, ene adichkidea, itzul zaite Betharramerat. Aphez saindua yen bezala badoha gibelerat eta Murde Guimon bere lagunarekin hasten du Bihotz Sacratuco Aphezen Congregazionea.

Hogoieta hamazazpi urthe zituen Michel Gari-coïtze; gizonac alaizpirituco ahalac, ala gorphutzeco indarrac hazcarrenean dituen adina. Hainitz lan borthitzac erabiliac zituen guziz azken hamar urthe hetan : hargatic haren osagarria ez zen den gutiena ere mendratua ; contrarat hain ongi zuen hartua lana, non erran baitzitaken hartan zela haren bizia ; haren pausa bakharra zen liburuen uztea othoitzari lotzeco eta othoitzetic gelditzea arimen arthatzeco. Orrhoitu zen zer egin duten bethidanic sainduec lan handi zerbeiti lotzeracoan, Yaincoa bere alde ezartzeco. Yoan zen Tolosarat eta han egin zuen hogoi eta hamar egunetaco erretreta bat, Aita Le Blanc, yesuista khartsu baten argiekin batean. Erretreta hartaric atheratu zen dena animuz bethea bere chedeari buruz. Mgr d'Astros, Bayonaco Aphez-

picu ohia zen Tolosan Archaphezpicu. Bethidanic hainitz atchikitzen baitzitzaion yaun Aphezpicu hori, Garicoitzec ez zuen nahi izan Tolosatic partitu hari bere chedeaz mintzatu eta haren benediziona escatu gabe. Zoazi, erran zion Archaphezpicuac amultsuki, *fidantziarekin has zazu zure obra eta yarraiki zaite Probidentziari curaye eta iraupenekin.*



Nekezcoac izan ziren hargatic hastapenac. Aita Garicoitzen gana bildu zen lehen apheza, Aita Chirou izan zen. Bi urthez ibili ondoan herriz herri predicatzen eta Yaun erretoren laguntzen, haizu izan zitzaion azkenean Betharramen sartzea. Huna nola condutzen zuen berac Betharramerat heltzea. Ni haratu nintzenean, bakharric zen Aita Garicoitz. Nola loriatu zen ene ikhustez! Aphur baten buruan bizkitartean orrhoitu zen zerbeit hartu beharra nintzela, bainan zer eman? Harec zuen guzia zen chingar zathi bat eta ogi erdi bat. Berac phizten du sua, picatzen du chingarra, eta gerren orde ziri baten puntan sarturic errearazten. Egundaino ez nuen yan hain gogotic eta hain apetitu onarekin. Lestellaco emazte on batec, Murde Lassalle zenaren nescato ohiac egiten zioten igandetan aste guzico cozina. Bainan miragarria dela giristino caritatea! Causitzen du zerbeit bertzer emateco, berac gauza guziac escas dituen denboran! Espainiaco Caputchin dohacabe batzu, beren herrietarie lege tzar batzuez casatuac, agertu ziren Betharramen yateco eta atherbe galdez. Aita Garicoitzec barnerat hartu zituen anaya batzu bezala, eta bere liburuac saldu heyeri yatera emateco. Urthe hartan Murde Perguilhem, Bastidaco yaun erretora, eta Murde Fondeville, Assonecoa sartu ziren Betharrameco misionestetan beren

herriac utziric. Ordutic baziren sei aphez, eta laster emendatu ziren, bertze batzu yen baitzizaizcoten. Biarnoco aldean orrhoit dire oraino Aita Garicoitzen lehen lagun hetaz : ezen ez da han herriric predicatzen entzun ez dituenic etat zembat arima heyec combertituac eta salbatuac : diosesatic canpo ere hedatu zen heyen fama.

Garaison deitzen den lecu batetan ere baziren yaun misionest batzu ; beila handiac egiten baitire hango Ama Biryinaren caperara. Hetaric biga, Murde Laurence eta Murde Lalanne ethorri ziren Aita Garicoitzen gana, arimen conbertitzen behar zutela harekin ikhasi ; asco misione eman zituzten han eta hemen Aita Guimonekin batean eta hola heyekin escolatu ondoan alchatu zuten berec misionest etche bat, hartaric baitire orai Lurden diren Aita misionestac.

Mgr Laneluc, Airaco yaun Aphezpicua, nahiz harec ere misionest etche bat bere diosesan alchatu, ethorri zitzaion Aita Garicoitzi argi eta conseilu galdez. Aita Garicoitzec, manamendu bezala harzen baitzituen Aphezpicuen nahi guziac, egin zion umilki galdegiten zion lana eta eman handic laster yaun Aphezpicua Betharramen iragaiten zelaric.



Denbora hartan adinez eta eritasunez ezindua zélacotz, Mgr d'Arbou, Bayonaco yaun Aphezpicuac utzi zuen bere cargua, bainan berac bere ondocotzat hautatu eta izendarazi ondoan berrogoi urthez diosesaco ohorea eta zoriona egin behar zuen artzain zuhur eta yakintsuna, Mgr Lacroix.

Bayonarat orduco, Mgr Lacroix yoan nahi izan zen Betharrameco Andredena Mariaren ikhustera eta ordu beretic maitatu zuen Betharrameco etchea. On hartu zuen eta fincatu Aita misio-

nesten erregelamendua eta deitu zituen Yesusen Bihotz Sacratuco aphezac. Gisa hortan Elizaco lege guzien arabera Jaun Aphespiciac 1841<sup>an</sup> on hartua, Betharrameco Congregazionea on hartu zuen oraino Aita Sainduac Franziac eta Ameriketaco asco aphezpicuc galdeginic, behin Uztailaren 30<sup>an</sup> 1875<sup>an</sup> eta bigarren aldicotz Buruilaren 5<sup>an</sup> 1877<sup>an</sup> eta azken aldi hortan Pio bederatzigarrenac ezagutarazi eta gomendatu zion mundu guziari obra saindu eta salbagarri bat bezala.

V. — AITA GARICOITZEC EGITEN DITU BI ESCOLA BETHARRAMEN ETA ORTHESEN. OLORONECO SEMENARIO TTIPICO BURUZAGI EZARTZEN DUTE. PABECO ETA SARRANTZECO ETCHEAC. BERE AITA MISIONESTETARIC IGORTZEN DITU BUENOS-AYRESERAT ETA MONTEBIDEORAT.

Guziac egiteco ziren Betharramen; etchea, capera, Calbarioa. Gauza ageria da, Aita Garicoitz lotu zen lehen lehenic Andredena Mariaren caperaren edertzeari. Bainan aithortu behar dugu denaden bezala: Aita Garicoitzec ez zakien escatzen; emailen ziotena hartzen zuen gogotic eta ezagutza handirekin; bainan ez du behinere yakin galdetzen. Berritu zuten capera zerua eta aphur bat edertu aldareac.

Hasi izan ziren ere Calbarioco estazionen egiten. Langile abil bat, Alexandre Renoir, harrarazi zuten han bortz urthez eta egin zituen zortzi estazione bere capera eta harrizco potret ederrekin. Han causitzen dire Yesusen agonia Olibetaco baratzean, Yudasec trahitzea, Yesus Caiphasen aintzinean, Azotatzeta, Elhorriz coroztea, Tribunalala, Salbatzaileac eta Ama Biryinac elgar causitzea, Gurutzeficatzea. Denac choratuac ziren estazione eder hec ikhustearekin, bainan hainitz gostatzen ziren eta Yadanic akitucheac ziren etheco sosac. Pabeco Conseilu Yeneralac eman zituen 1845<sup>an</sup> 1500 libera obra hortaco; bainan

yadanic baitziren 20.000 liberaz goiti chahutuac, gelditu behar izan ziren zortzi estazione horiee egin eta. Bizkitartean Alexandre Renoir langilea ez zen nahi izan urrundu Betharrameco caperan orrhoitzapen bat utzi gabe, eta harec egina da



BETHARRAMECO ANDREDENA MARIA (RENOIREC EGINA)

aldarearen gaineco aldean Ama Biryinaren har-  
rizco potret ederra Yesus haurra belhaunen gai-  
nean.

Yadanic 1837<sup>an</sup> Aita Garicoitzec eta haren lagu-

nec misionen emaita bezen ongi gogoan zuten muthico gazten giristinoki altchatzea eta escolatzea. Mgr d'Arbou jaun Aphezpicuac on hartu zuen heyen chedea eta gehiago dena Yaincoac benedicatu haste hastetic; 1838<sup>aren</sup> acabantzaco bazituzten Betharrameco escolan ehun eta berrogoi eta hamar hurrez goiti eta ondoco urtheco izan zuten har zezaketen baino galde gehiago. Etchea ttipiegi gertatu zen, harat bildu ziren hirur ehun haurrentzat. Hain ongi yoan zen escola hori Aita Barbe buruzagi, non hamar bat urtheren buruco hasi baitziren latinaren ere iracusten, Aita Barbe hura bera eta Aita Gaye Lestellecoa buruzagi. Milaca athera dire escola hartaric diosesa ohoratu duten aphezac. 1850<sup>an</sup> Ortheseco hiriac ezarri zuen Aita Garicoitzen escuetan escola handi bat eta haren beraren laguntzarekin batean, Jaun Aphezpicuac egiten zuen Moncadecho escola. 1851<sup>an</sup> Paberat ere deitu zituzten Betharrameco misionestac San Luis Gonzagacoaren elizaren atchikitzeo. Urthe hartan berean gertatu zen bertze gauza bat.

Bada Sarrantzan miraculuzco Ama Birgina bat, aspaldico denboretan Biarnoco alde guzietaric beilariac yoaiten baitziren Ama Birgina haren caperarat. Bada Murde Larrieu, herri hartaco jaun erretorac ere galdegin zuen Betharrameco misionestetan sartzea. Zer egiten du orduan Jaun Aphezpicuac? Caperaren ondoan baitzen *Pré-moñtrés* deitzen diren fraide batzuen comentu zahar bat, erosten du comentu hura eta han ezartzen ditu Bihotz Sacratuco aphezetaric, Ama Birgina miraculuzcoaren debozionearen atchikitzeo eta emendatzeco.

Handic laur urtheren buruan Murde Adouc, Oloroneco Semenari zaharra berac berritu eta hamabörtz urthez ederki erabili ondoan, eman izan zion etche eder hura Jaun Aphezpicuari diosesarentzat. Aita Garicoitzen gana zuen hel egin orduan oraino Jaun Aphezpicuac eta hura

zuen cargatu semenarioaz, eta harec hartu lana lotsatu gabe.

Bada oraino bertze obra bat guziac baino miragarriagoa Aita Garicoitzec eta haren lagunec egin zutena. Escual herritic eta Biarnotic hainitz yende bazohan Ameriketarat, zerbeit onthasun biltzecotan beren ustez, bainan urreac eta zilarrac baino gehiago balio duten bertze onthasun batzuen, fedearen eta erlisionearen galtzeco menturan.

Buenos-Ayreseco Archaphezpiguac icherribatu zion Bayonaco yaun Aphezpiguari ez zukenez izanen zenbeit aphez harat igortzeco, hainbertze herritarreri bere mintzairean Ebanyelioaren predicatzeco ; zer bilhacatu behar ziren bertzenaz, Yaincoaren hitza behinere ez entzutearekin ?

Yaun Aphezpiguac mintzatu zitzaion gauza hortaz Betharrameco Aita misionesteri eta guziec ihardetsi zuten prest zirela partitzerat. Zaharreneac ziren suharrenic itsasoz bertze alderat yoan beharrez arimen salbatzerat. Partitu ziren Aita Guimon, Barbé, Larrouy, Harbustan eta Sardoy nahiz yadanic adin batean ziren. Bortzac lecu urrun hetan hil izan dire, batzu Ameriketaco eguerdi aldean chahutu zuen 1871<sup>co</sup> izurritean, bertzeac behar baino goizago lanac higaturic. Zer zoriona ez zen izanen Aita Garicoitzentzat heye-kin edo hetaric baten ordain partitzea ? Aita Barberen ahaide eta adichkidec hainbertze egin zioten yaun Aphezpiguari Aita hura ez nahiz partitzerat utzi, non azkenean yaun Aphezpiguac erran baitzion gelditzeco. Mement berean Aita Garicoitz belhaunico yarri zitzaion yaun Aphezpiguari, utz zezan othoi hura Aita Barberen ordain yoaiterat. *Deus es da makurtuco ni yoanez, zioen ; Aita Barbec nic baino hobeki eginen du Betharramen.* Bainan Aita Barbec ez zuen nahi izan holacoric ; orduan yaun Aphezpiguac nigarra begian besarcatu zuen eta benedicatu eta handic laster bortz misionestac eremaiten zituen untzia,

*l' Etincelle*, urrundu zen Franziatric Ameriketarat buruz.



AITA GARICOITZ AITA BARBEREKIN APHEZPICUTEGIAN

VI. — AITA GARICOITZEN EGUNA. — EZ ZUELA IKHUSTEN YAINCOAREN NAHIA, LANA, ETA BERE MISIONESTEN ONGIA BAIZIC.

Erran daitake Aita Garicoitzec, bere bizi guzian, ez dituela ikhusi eta bilatu hirur gauza baizic, Yaincoaren nahia, lana eta bere misionest



familiaren ongia. Haste hastetic iracutsi zuen khar bizi bat bere eginbideri yarraikitzeo eta bethidanic ahalic chuchenena bethetzen zituen, ez bada hala manatzen ziolacotz bere yeiteac, bainan bazuelacotz egiazco debozionea eta bertzalde halaco tokietan eta yenden erdian aurkitu zelacotz.

Nolacoa izan baitzen bai Ibarreco escolan, bai Anghelu Garrozeco laborariaren etchean, hala halacoa agertu zen Donapaleon, Musde Bordaren muthil. Ponduen pondu egiten zituen egin behar zituen guziac; bainan denbora bere escuco zuen bezen laster, bazohan bere liburuetarat eta yaun erretor etchearen chocotto batean, han harizen lanean, secular amor eman gabe, lana gaichtoago zenean hobeki bermatuz. Horra zertaco, nabiz buruzco lanetan ez zitaken hari bertze lagunac bezen ardura eta luzaz, bizkitartean lehen zen escolan, eta behin lehen prezioac irabazi zituelaric, prezio horiee hartu zituen Berton yeneralaren escutic.

Gerochago aphezpicutegian, denboraric gehiena behar zuen hango sehieri casu egiteco; chahartua zen alabainan yaun Aphezpicua, eta beren meneco utziz geroz, asco macur egin zezoketen sehiee. Bizkirtartean hain suharki hari zen liburutan, non hastiatu baitzuten lagunec eta elgarrekin egin zuten, gutziac betan loturic, behar zutela yo, zanpatu. Michelee yakin zuen heyen cheden berri: chut chuta, begiac erne eta biphil, mahungac ukhondoetaraino bilduric eta altchaturic, igurikitzen ditu; bainan nihor ez zen atrebitu hurbiltzerat.

Larresoran eta Cambon halaber, iracutsi zuen zer nahi lanetaco on zela eta ez zuela akitzeac izitzen. Bainan Betharramen bereziki haren bizia izan da bethiereco lan bat arteric eta soseguric gabe, guziz azken hogoi urthetan. Nahiz berant gauaz lanean haritua, yeikitzen zen hirurac eta laurac artean, eta bere meditazionea egin eta

lotzen zen berritz lanari. Igoneco comentuan cofesatzen haritzen zen zenbeit orenez, gero liburutan Betharramerat itzultzeko tenoreraino. Han berant emaiten zuen meza beilatiarrentzat eta gero, doidoia kikera bat chocholet hurrupaturic, bazohan berehala escola egiterat. Haren iracaspennen entzuterat biltzen baitziren ez bacarric aphezgaiac, bainan etchean ziren aphez misionestac ere. Eta zer iracaspenn onac eta ederrac! Batzuetan lagno lagnoac, casic haur baten menecoac, bertze batzuetan izpiritu chorrotchenen, yakintsun aiphatuenen dinacoac. Oren bat irauten zuen escolac, eta oren hura bethi labur-regi zitzaioten aditzaileri.



Escola ondoan, bertzeac bazohazin yateco tokirat, bazcaritaco, Aita Garicoitz aldiz itzultzen zen bere lanerat. Eta zer nahiren gainean lana, bethi berrituz eta emendatuz yohan zena! Norc daki zembat letra egunero, arimen argitzeko, gauza guziac chuchen ibilarazteco! Zembat gogoeta, othoitz, yakiteco nola behar zuen fincatu bere misionest familiaren bizi moldea, zer *erregela* eman behar zion familia maite hari. Eta geroago eta gehiago, beretzat eta bertzentzat argia bilhatzen zuen Elizaco saindu eta *Doctor* handiennen iracaspennetan.

Lan horien guzien artetic bizkitartean denbora hatchemaiten zuen othoitzean ardura haritzeko eta asco piaia luzeren egiteco, ala zohan Bayonarat yaun Aphezpicuaren mintzatzerat, ala ibilzadin bai bere misionest etchen, bai zerora belteh comentuen ikhusten; bertzalde bere gain hartua zuen muthico gazte batzuen escolatzea, ezagutua baitzuen hetaric egin zintezkela Elizagizon balios batzu... Eta hala gertatu ere zen.

Hoinbertze lanez bethea zen egunaren arratsa heldu zenean, orduan choilki bere gorphutzari

eta segur ongi beharrez emaiten zion bere hazcurria bainan aphairu bakhar haren denboran ere, haren gogoia osoki bihurtua zagon iracurtzen zituzten gauzeri, sainduen bizitzeari, Elizac menderen mende yasan dituen gudueri, eta ez zen orrhoitzen ere yaten hari zela. Zer loria guziz harentzat aditzearekin zenbat ederki Pio bederatzigarrena, Aita Saindu handia, yazartzen zitzaioten bere etsaieri, bere erregetasuna kendu nahi zioteneri, Yesu Crïstoc yondoni Petriri eta haren ondoco zuzeneri, Erromaco Aphezpicueri eman ahalac ukhatzen zituzteneri.

Afal ondoan aphurto bat egoiten zen bere haurrekin, gero othoitzia, ofizioa, arrosorioa, zenbeit gogoeta saindu gurutzeficaren oinetan ; hola acabatzen zen eguna, bethi lan batean edo bertzean iragan eguna.

Zergatic zuen Aita Garicoïtzec lana hoin maite, alferkeria hoin hastio ? Zeren bizi baitzen bethi Yaincoaren aintzinean, Yaincoaz eta Yaincoaren nahi sainduaz orrhoituz, eta orrhoitzapen horrec sustatzen eta hazcartzen zuen zer nahi lanen hasteco eta Yaincoaren laguntzarekin batean bururatzeco.

VII. — AITA GARICOÏTZEC ONGI HAINITZ EGIN DIOELA BERE HERRIARI BAI MISIONEN BIDEZ, BAI SERORA BELTCHAC LAGUNDUZ, BAI YENDEN ARTEAN ESCOLA EMENDATUZ, BAI BERE CARITATEAZ.

Erlisionea zer nahitaco on da, erraiten daucu Yondoni Paulo Apostoluac ; berekin badakharke bai mundu huntaco, bai bertzeco zoriona. Menderen mende garbiki ageri den egia eta giristino tokietan mila gauzec iracusten eta frogatzen dutena, hau da : sainduac izan direla bethi bere herrien ongiegile. Hala izan da Aita Garicoïtz ere. Horren yakiteco, aski da orrhoitzea yadanic aiphatu ditugun obra on eta eder guziez. Bainan

gehiagoric ere eginarazi zion Yaincoarentzat eta arimentzat zuen amodioac.

Elizaco saindu eta yakintsun handiennen arabera, herrietaco aphezec arimeri buruz egiten duten arduraco lanaz canpo. deusec ez diote diosesa bati, giristino escualde bati hainbertze on ekhartzen nola misionec ; erran daiteke misionec osatzen eta fincatzen dutela herrietaco aphezen lana, bai macurrae chuchentzeco, bai egiazco debozionearen arimetan phizteco eta begiratzeco, bai salbamenduzco obra guzien hedatzeco eta fincatzeco ; gehiago dena, hainitz arima ez da salbatzen misioneri esker baizic.

Nola Aita Garicoitzen lagun gehienec ez baitzakiten escuara, escual herrian ez dire izan hainitz ezagutuac. Bainan diosesaco biarno aldean, bethi bizi bizia dago Aita Chirou, Larrouy, Perguilhem, Carrerot, Casau, Vignau, Vignolle, Higuère eta bertze ascoren orrhoitzapena eta yendec badakite erraiten zenbat lehiarekin secular akitzen ez balire bezala, bazabiltzan herriz herri predicatzen, cofesatzen, hitz batez arimen zeruco bidean ezartzen edo aintzinarazten. Heyeri eta hec bezalaco bertze zenbeiti esker da Bayonaco diosesa menturaz Franziacho chocoric giristinoena, fedea eta erlisioneco urhatsac hobekienic atchikiac diren toki dohatsua.

Aita Garicoitz ez zaitaken hola herriz herri ibil bere misionestekin. Bataila batean ere, aintzindari lehena soldadoetarie hurbil egoiten da, bainan berech, ahalaz batailaren goiti beheiti guzien ikhusteco tokian, soldadoeri araberaco manuen emaita-gatic. Hola zagon Aita Garicoitz. Lehenic bere misionesteri erraiten zioten zer egin behar zuketan arimen salbatzeco, gero ahalaz yakintsun egiten zen misionetaco harat hunatez, bozcariatzen zelarie gauzac ongi zohazinean, berri tcharrec bihotza erdiratzen ziotelarie. Ebanyelioan iracurtzen dagu hola hola zuela egiten Yesus Yaunac, predicatzera birazca igortzen

zituen hiruretan hogoi-ta hamabi dizipuluekin. Bertzalde Aita Garicoitzec ez zakien Biarnesez mintzatzen, bainan horrec baino habeki misionetarie urrun atchikitzen zuten bai Betharramen, bai Igonen zituen lan handiee.



Gizon batentzat aski izan ez balitz bezala Semenarior handi batetaco buruzagi izaitea ; hainbertze beilatiar bethidanie ibili den Betharrameco caperaco zerbitzuaren egitea, egunetic egunera emendatzen hari zen misionest familia baten aintzindari izaitea, Aita Garicoitzi eman zioten oraino Igonen den serora beltchen comentunausian cofesatzeco eta predicatzeco cargua eta carga. Serora beltchen Igoneco comentua hastetic hazi ttikitto bat bezala zen, bainan hazi ttiki hura arbola eder eta handi bat bilhacatuda ; eta zenbat nescato gaztec ez dute causitu arbola haren adarren azpian itzal salbagarri bat, zenbat arbola haren pean ez dire izan beren familien, Elizaren eta herriaren ohoreac ! Serora beltchec non nahi eman dute umiltasunaren, eztitasunaren, mortificazionearen etsenplua ; nihore ala Biarnoan, ala Escual-Herrian ez ditu aphezac eta misionestac hobeki lagundu Yaincoren obran, eta segurki, heyeri esker hainitz eta hainitz herritan hain laster yaincozco bidetarat ziren itzuli arimac, eta dute geroztic bide beretan iraun. Bainan nola harri serora beltchac hoin khartsu eta hoinberze bertutez aberastuac izaiteaz, orrhoitzen balin bada hogoi eta hamazazpi urthez Aita Garicoitz izan dutela aintzindaritzat ! Aita Garicoitz zen heyen argitzailea, heyen sustatzailea. Erran daitake, okhinac bere orhea moldatzen duen bezala, Aita Garicoitzec moldatuac eta casic orhatuac direla serora beltchen arimac eta bilhotzac. Nola ez ziren izanen Yain-

coarentzat, arimentzat amodioric garbienaz, bizienaz eta argituenaz betheac ?

Hola ziren herri guzirat hedatu Aita Garicoitzen ongi eginac : hainbertze alde orotaco gazte escolatuac casic deus bereri gusta gabe, hainbertze lan eta obra eder eginac, guziac populuaren onetan : hainbertze gisa guzietaco ongi eta fagore eginac haren ganat hel egiten zuten guziri : batzutan berac emanaz, bertzetan berac emaitecoric ez zuenean, aberatsetaric ardietsiz : ez zen harec egiten ez zuenic lagunaren fagorelan.

VIII. — ZEMBEIT HITZ AITA GARICOITZEN BERTUTEN GAINEAN. AITA SAINDUARENTZAT ETA APHEZPI-CUENTZAT ZUEN ERRESPECTU HANDIA.

Aita Garicoitzec bere ahal guziez itzaltzen zituene bere obra onac : bainan ez zezaken nihor engana eta hartaz aiphatzean yendec gogotic erraiten zuten : Saindu bat da.

Bertute guziac alabainan aurkitzen ziren hura baithan. Elizac laster yuyatuco du zenbat gora altchatu duketen bertute heyec zeruan : arte huntan aipha ditzagun laburzki ederrenac.

Haren fedea izan zen bethi haurrean bezen lagno eta garbi. Bethidanic Elizac sinesten zuen bezala, harec ere sinesten eta goraki aithortzen zuen Andredena Maria bekhatuac gabe izan zela contzebitua eta Aita Saindua ez zela tronpatzen erlisioneco gauzez zerbit irakasten zuenean.

Fede khartsu hori agertzen zuen guziz Sacramendu Sainduaren aintzinean eta meza sainduaren emaitetan. Chut chuta, behinere deusen gainean fincatu gabe, ez zuen begiric ere mugitzen, Sacramendu sainduaren oinetan causitzen zelaric. Meza emaitetan hain zen khartsua, hainbertze errespectuz eta amodioz zuen begitarteac bethea, non icusten zutenec erraiten baitzuten aingeru

bat zuela iduri : ascoc erran nahi izan dute ere ikhusten zutela lurretic airean adorazionean.

Ez zen fedea baino gutiagoa Aita Garicoitzec Yaincoa baithan zuen fidantzia. Gure fidantzia guzia, erraiten zuen ardura, izan behar da Yaincoaren Probidentzia : ez deraucu behinere faltarie egin orai artean, ez deraucu faltarie eginen secular leyal egoiten bagaizco. Eta fidantzia hori zelacotz, ez zuen nahi *asurantzetan* diruric ezartzea, ez onthasunic geroco bazterrerat emaittea ez eta ere pobrentzat edo etheco yendentzat behar zenetic deus kentzea.

Eriez mintzo zenean, erraiten zuen oraino : ez dezagun ahantz eriac carga bat izaiteco orde, Yaincoaren benedizioneac yautsarazten dituztela gurea bezalaco etchen gainera. Eta horra zertaco bera ez zen deusen ere beldur : norapeit Yoan behar zenean, bazohan gauaz ala egunaz edo zoin tenoretan, zoin nahi abere gaichtoren gainean batere beldur izan gabe. Zenbat irriscutan ez da ibili ! zenbat istripu ez zaio gertatu ! zenbat aldiz ez da carrosetarie erori ! bainan Yainco onac begia zaucan haren gainean. Dena amodioz eta fidantziaz bethea Yaincoarentzat, halaber caritatez sutan arimen alderat, ez zen deus hura izitzen zuenic. Cambon iracusten dute oraino bide patar chut chut bat : egun batez hartan behera yoan zen zaldiz abrocan lepho hezurraren hausteco menean, erran baitzioten gizon bat handie hurbil hilzen hari zela. Geroago Betharramen goiz guzia haritzen zen beilatiarren cofesatzen, predicatzen zioten, meza emaiten zuen heyentzat eta hameca orenen gainean, bazohan zaldiz Igonera, han berriz mezaren emaiteco serorentzat : hainitz urthez igande oroz lan hori egin izan du Aita Garicoitzec eta deusetan truc ez zuen bertze nihori utzi nahico.

Aldi batez berec omentu baten ikhusterat zohan ; bainan ez zen heldu ahal izan gauaren erditan baizic : yadanic aspaldian oro ohian ziren. Zer

egiten du buruzagi onac ? Nihor ez nahiz macurtu, bere capaz inguratzen da ahal bezala eta halache gau guzia iragaiten du canpoan athe alasean. Curri zenean, tokiric tcharrena hartzen zuen carrosetan, eta behin hartuz geroz ez zion gehiago nihori uzten.

Horiec oro egiten zituen errechki eta casic ohartu gabe, zeren eta gazte danic usatua baitzen bere gorphutzari manatzen eta haren zafratzen. Airaco Semenarioan zelaric, Michelec azotatzen zuen bere burua : hori badakigu haren hauzo lagun baten ganic ohartzen baitzen aise haren penitentzieri eta aldi bat ikhusi ere baitzuen odola zariola. Aita Garicoitzec ez zion behinere emaiten gorphutzari baitezpada behar zena baizic. Mahainean nihorc ez zezaken ezagut zere egiten zion atsegín eta zere ez : zer nahi bardin zitzaion. Bethi Yaincoaz eta arimez hartua, bizi zen gorphutzic izan ez balu bezala ; ardura arratsa yeiten zenean, bertzec behar zuten orrhoitarazi oraino barura zela eta San Bernati bezen ongi gertatu zaio behin baino gehiagotan hari ere gauzaric tzarrenetarie batere ohartu gabe atsegínekin yatea.

Bertute horiec guziac fincatuac zauden umiltasunaren gainean. Gauza guzietan Yaincoari zagon osoki eta ez zuen mesprezioric baizic bere buruarentzat. Hain zen umila, non bere obra guziac eratchikitzen baitzizozkin Yaincoari eta graziari eta bere buruaz erraiten zuen hura zela *deus balio ez zuen zerbitzari bat*, gutiago oraino, *bekhatuzco eta miseriazco leze bat*, *zoco bethetzeco edo trabuco baizic on ez zen ez deus urguluz bethe bat*. Toki guzietan azken yartzea, lanean hainitz haritzea, deusetan agertu gabe, merezi ez zituen asco burla eta laidoren yasaitea, horiec oro Aita Garicoitzi agradatzen zitzaizcon, mundutar zenbiti laudorioac edo ohoreac egiten zaizcoten bezala. *Yaincoa guzia, ni deus ez : Yaincoa bere tokian, ni enean*, zioen bethi edo oraino zerbeit



uste gabeco macur handi gertatzen zenean ; Yaincoac badaki zer hari den.



AITA GARICOITZ BACHERA ICUZTEN

Haren atsegina zen orori yakinaraztea zer burhaso erromes eta aphaletaric zuen Yaincoac altchatu :

*Ez nintzen artzain tchar deus ez zakien bal baizic ; Yaincoac ez zezaken deus onic causi ni*

*baithan eta gure Congregazionearen bizirik egoitea iduritzen zaut hil baten phiztea baino miraculu handiagoa dela.* Hain umila zenaz gainean, ez da miraculu edo zoin gauza on balin bazen yaincoaren zerbitzariarentzat : yatecoric tcharrenac edo nola nahi eginac, bertzec utzi hondarrac, nola nahico soinecoac garbiac ziren ber, etheco azken gambara, gambara hura izanic ere abere-tegico choco bat, argamas batez hetsia. Ahal zuenean, besta bat zen harentzat, lan arruntentan haritzea, hala nola bazter garbitzea, ur ekhartzea, bachera icuztea. Zenbat aldiz ez zen yoaiten dantal bat aintzinean ezarri eta sucalderat freren arterat, heyeri beren ofizio arruntaren maitarazteco, erraiten ziotelatic : *Guc hemen zoin lehenca ibili behar ginuke lanic gaichtoenen eta gauzatic chaharrenen ondotic.*

Bihotza bethi lacho deuseri sobera estecatzerat utzi gabe, bozcarioekin on hartzen zuen Yaincoari zohacona, eta ez zen casuric hari zer izanen zen hartaz edo haren lanez. Loriatu zen Ama Biryina Lurden agertu zela aditzearekin eta nola zenbeitec erraiten baitzioten Lurdec itzal eginen zioela Betharrameri : *Contrarat*, zuen ihardetsi, *Lurdec emendatuco du Betharrameren fama eta emanen dio egundaino izan ez duen distiradura bat.*

Orobat izan zen Aita Jesuistac ethorri zirenean Paberat, Aita Garicoitzec erraiten zuena hau zen : *Iduri zerbeit eta ez gira deus ez balzu baizic, Eliza ahal dugun bezala laguntzen dugunac, bertze nihor ez delacoltz : erran dezagun bihotzaren erditic : egiaren aintzinean suntsitu behar du itzalac eta ilhumbeac argia agertzearekin.* Bertze aldi batez huna nola laudatzen zuen Murde Ceztac eta haren obra eta lanac. *Yaincoac benedicalzen dituen gizonac, hec dire bere buruac ez deustzat dauzcatelatic Yaincoaren gainean fincalzen direnac : halacoec zer nahi ongi egin dezakete. Ikhus zazue Murde Ceztac. Yaincoaren*

*obra hasiz geroz segitzen du traba guzien gatic, eta horra non diren lur aberats batzu bilhacatuac ordu artean deus ekhartzen ez zuten hare eremuac.*

Bainan Aita Garicoitzec bertze gauza guzien gatic, eta casic Gorphutz Saindua bezenbat maite zuen eta errespetatzen zuen Yaincoaren autoritatea Aita Sainduaren eta Aphezpicuen baithan. *Aphezpicua, zioen, Jesus Christo gure Yaunaren ordaina da. Ez naiz bertze deusen gatic sartu Betharramen, baizic ere ikhusi baitut zoin obedientzia guti duten aphez batzue bere Aphezpicuarentzat eta nahi bainuke macur hori aphezen artelic kendu. Ah ! nic bezala ikhusi balituzte bertze zenbeitec Aphezpicuac nigarrez : bainan badire deusec hunkitzen ez dituenac. Aphezpicuac escu guziac baditu gure Congregationearen ganean : barraya eta ken dezake nahi duenean, eta orduan ere behar ginioke musu eman haren escuari. Eta badakite guziec bihotzetic zela mintzo hori erraitean eta hitz horien arabera izan direla bethi haren obrac. Bere amac iracutisia zuen haurretic Aita Sainduaren alderaco amodioa eta errespetua : ardura errepicatzen zituen bere amaren hitz hauc : *Gauden bethi Aita Sainduarekin.* Eta bere bizi guzian bethi Aita Sainduarekin egon da, on hartzen zituelarik haren eracuspén guziac. Hortacotz ohoratu eta estimatu dute bere demboraco eliza gizon handienec, hala nola izan baitire Pie, Salinis, Gerbet, Perraud, Luis Veuillot.*

IX. — AITA GARICOITZEN AZKEN EGUNAC. — HAREN HILTZEA. HAREN GORPHUTZARI BIHURTU ZIOZCATEN OHOREAC. — M<sup>gr</sup> LACROIX HAREN HIL OHEAREN AINTZINEAN. — HAREN EHORZTEA.

Hurbiltzen hari zen Aita Garicoitzentzat Yaincoa ganic bere bertuten sariaren izaitecotenorea. 1853<sup>an</sup> lehenic yoa izen zen paralisia colpe

batez, sendatu zen bizkitartean hartaric, bere ustez hari cofesatzen ziren arima khartsuen othoitzeri esker. *Yaincoaren ondotic, zicæn, Betharramen eta Igonen enetzat egin dituzten othoitzeri dut zor sendatua izaitea.* Handic ondoco urthean izan zuen bigarren colpe bat, ongi izitu baitzitu guziac, nahiz ez zen lehenbizicoa bezen borthitza. *Ez beldur izan, zioten erraiten orori : yonæn naiz oraino Yaincoac nahi duen arte.* Handic goiti urthe guziez eri egoiten zen gutiago edo gehiago. Ascotan uste izan zuten ere harenac egin zuela, bainan alchatzen zen bethi.

Bizkitartean nahiz bortchatzen zuen bere burua, ageri zen indarrac emeki emeki yoaiten hari zitzaizcola. 1863<sup>aren</sup> hastean eritu zen behinere baino gehiago, yen zitzaion ez tul borthitz bat eta harekin barneco oinhaze gaichto batzu. Gaitza emendatu zitzaion garizumaco lehen egunetan ; hirur astez behar izan zuen egon ohean. Bizkitartean oinhazeac ez titu zitzaizcon Apirileco iguzki gochoarekin. Uzte izan zuen berac sendoa zela eta arte on hartaz baliatzeco yoan izan zen Bayonarat yaun Aphezpicuaren ikhusterat. Bazco astean zen haren Bayonarat yoaita. Harritu zituen Bayonaco bere adichkide guziac, hain zuten causitu bertze bat egina, eta beren artean egiten zuten ikhusico ote zuten bederen gehiago. Handic zortzian, bakharrie zelaric Igoneco comentuan, gauaz oinhaze batzu lotu zitzaizcon hain borthitzac, non uste izan baitzuen berac hiltzen zela. Ahal bezala izuli zen Betharramerat. Han bizkitartean onerat eman zuen, gaitza ere iduriz urrundu zen zembait artha oneri esker. Chutic egoiten ahal zen phondutic, aphez khartsua lotu zen bere lan guzieri ; bainan Salvatore aintzineco larunbatean, gauazco hamar orenetan, horra non gaitza heldu zaion behinere baino borthitzago. Ichilic pairatzen zuen nihor macur beldurrez : bainan aldihartan ezin bertzez duda gabe oihu egin zion haren ganbararen ondoan lo egiten zuen

muthilari. Hunec causitu zuen hila bezalaegina, izerdi uharretan, doidoa hartzen zuela hatsa.

Bizkitartean aphur baten buruan oinhazeac eztituric Aita bihotz onecoac manatu zion muthilari, itzul zadin oherat. Halaco gau gaichtoa iragana gatic, deus izan ez balitz bezala bere tenorean eman zuen meza. Egun hura aski ona izan zen eta arratsari buruz, aski hazcar zela, Aita Garicoitzec nahi izan zuen behin yoan yaun Aphezpicuaren ikhusterat, hauzo herri hetan baitzabilan confirmatzen. Bainan gero gelditu zen Igoneco serorac ikhusi eta, biharamunean yoaiteco yaun Aphezpicuaren ganat Mirepeix herrirat. Egun hura Salvatore bezpera zen. Yaun Aphezpicua aphez andana batekin zen Aita Garicoitz hurbildu zenean. Osoki hunkigarri zen. ikhustea aphez chahartu hura, bere begitarte mehatu eriarekin, buru has, escuac yuntaturic, belhau-nico yaun Aphezpicuaren oinetan, benedica zezan galdez. Benedicatu baino lehen yaun Aphezpicuac hitzemanarazi zion hobeki arthatuco zuela bere osagarria eta ez zela hainbertze lanean harico. Haur baten lagnotasunarekin, Aita Garicoitzec ihardetsi zuen eztiki gauza gutiac zirela harec Yaincoaren loriaco egin gauzac : bizkitartean hitzeman zituen nahi zituzten guziac eta yaun Aphezpicuac benedicatu zuen eta besarcatu nigarrez zagoelarie.

Handic itzultzean Aita Garicoitz tricatu zen Igoneco comentuan. Ez zen egon hain maite zuen etche saindu hari azken agur baten egiteco denbora baizic. Behinere ez bezala bezperan curritua zuen guzia eta entzuna zuten haren gora benedicatzen.

Betharramerat zenean, afaldu zen bertze Aita Misionestekin, gero solasean egon heyekin aphur bat, bethi bezen alegera eta arrai zelarie ; eta azkenic bere manuac eman zituen yaun Aphezpicuari ahal ziren ohore guzien egiteco. Gau erditan eztul bulta batec iratzarrarazten du bat

batean : behin ez zen izitu ; bertze asco aldiz ere izan baitzuer bulta horietaric : bainan aldi hun-



AITA GARICOITZ APHEZPICUAREN BENEDIZIONEAREN  
GALDEZ BERE HILTZEKO BEZPERAN

tan eztitzeco orde eztula bethi borthiztuz yoan zen.

Asma ahal guziak egiten diozkite, bainan alferretan : aiphatzen dute behar dutela yaun medicuaren bilha igorri. Bainan eriac ez du nahi : *Ez du balio*, dio eztiki. Bizkitartean geroago eta gaizkiago doha : berac galdegiten du behar dela

cofesatu. Han diren aphez eta frera guziac belhaunicaturic hasten dire agoniaco othoitzen erraiten. Mement batez iduri du oinhazeac eztitzerat dohazila; bainan aphur baten buruco aphez sainduac altchatzen ditu begiac zeruco alderat eta erraiten du: *Ah! acabo da*. Gero burua aphaltzen duelaric, locartzeco bezala, erraiten du: *Miserere mei, Deus, secundum magnam misericordiam tuam, erran nahi baita: Urrical zakizkit, Yauna, zure urricalmendu handiaren arabera*. Horra nola bihurtu zion bere arima Yaincoari, Yesusen zerurat igaiteco egunean, Mayatzaren 14<sup>an</sup> 1863<sup>an</sup> goizeco hirur orenetan.

Yauna baithan pausatu zen bere lan eta nekezko eguna hasten zuen tenore berean. Haren hil berria hedatu zen escualde guzian chimichta baten pare. Zazpi orenetacotz, han zen yaun Aphezpicuaren mandataria zenbat pena hartzen zuen erraiterat igorria.

Ganbara bat hil capera gisa moldaturik, han ezarri zuten gorphutza eta hirur egunez han utzi guziec ikhusteco moldean. Orduan gertatu zen sainduen hiltzetan baizic gertatzen ez den ikhugarri bat. Lehen lehen egunetic hil capera hartarat yen zen yendea osteca. Izan ziren Pabetic, Tarbetic, Bayonatic beretic: bizi zelaric ezagutu zuter guziec nahi zuten oraino aldi bat ikhusi haren begitarte saindu eta ona. Gambara yendez betha zagon goizetic arrats; guziec nahi zuten ikhusi eta gero haren aintzinean nigar eta othoitz egin, Gorphutz hari nahi ziozcatan hunkiarazi medaila, arrosorio, liburu, debozinezco edo zoin gauza edo oraino, mocanes, lepoco eta bertze edo zoin soineco. Ascoc nahico zuten ere aphez sainduaren gauzetic zerbeit ereman; eta behar izan zuten begia erne atchiki ohointza saindu hetaric egiterat ez uzteco. Laur aphez baziren bethi han zaudenac yendearen zaintzeco. Nahi zituzten haren escuac hunkitu, haren zangoac besarcatu: amec ekhartzen zituzten beren haurrac; eta

gauza miragarria, haurrac ez ziren batere izitzen gorphutz hura ikhustearekin, ezagutzen izan balute bezala hura zela Yaincoaren eta haurren adichkideric hoberenaren gorphutza.

Bertzalde yadanic erraiten zuten asco miraculu



M<sup>gr</sup> LACROIX AITA GARICOITZ HILAREN AINTZINEAN

egin zituela bizi zelaric eta guziec zioten eginen zituela segur hil ondoan ere.

M<sup>gr</sup> Lacroix ethorri zen biharamun arratsal-



dean. Hil caperan sartzearekin, nigarra begian, belhaunicatu zen eta erran zuen : *Horra non den beraz adichkide saindu eta pare gabeco hura . Yainco Yaunac ereman du bere ganat. Yaun Aphezpicuac ere hunkiarazi ziozkin gorphutzari bere kurutzea, othoitzeco liburua eta arrosorioac.*

Ehorztea egin zuten larunbatean hamar orenetan. Ohore ederrac bihurtuac izan zitzaizcon eta ez zitaken bertzela : ezen Yainco Yaunac berac errana da : *Bere nahiz aphaltzen dena, izanen da goratua :*

Hil ohore hetan yaun Aphezpicuac berac nahi izan zuen izan buruzagi Boutoey bere bicario yeneralarekin ; han aurkitzen ziren ere diosesaco aphez nausiac eta bertze aphezeticaric hainitz.

Azken othoitzac erran baino lehen, yaun Aphezpicua mintzatu zen : guziac bihotzmin handitan ziren eta nihore segur ez zuen gogoan urrhatsic eginen zela egun batez Aita Garicoitz saindu izendarazteco : bainan iduri zuen Yaincoaren graziac argituric, yaun Aphezpicuac yadanic ikhusten zuela gauza hori : hain ederki zen mintzatu haren bertutez eta haren lan handiez.

X.— SAINDU FAMA. GAUZA MIRAGARRIAC GERTATZEN DIRE AITA GARICOITZEN HOBIAN. — ELIZAC EGIN HAUZIA. ERRESPETAGARRI DECLARATUA DA AITA GARICOITZ. — DOHATSU DECLARATZECO HAUZIA HASTEN DA.

Yaincoac Aita Garicoitz, bizi zeno, grazia nasaienez aberastu zuen ; hil den ondoan, eman izan dio miraculu egiteco ahala. Iduri du haren hobitic atheratzen dela zeruticaco indar bat. Asco yende badabila hobi hartan, Aita Garicoitzen othoizteco, eta zenbat ez da entzunic ? Haurreri bereziki begi onez behatzen diote Aita Garicoitzec. Haurrac beren amec ezartzen dituzte haren hobi gainean eta oraino chutic ez zoazinac hasten dire curritzen eta eleketa ez zakitenac mintzatzen.

Yaun Aphezpicuac hautatu aphez batzu asco  
halaco gertacariz segurtatu izan dire, eta heyen



YESUSEN PHIZTEAREN CAPERA

ichtorioa ahal bezen chuchen eta cheheki eginic,  
Erromarat igorri izan dute. Ditzagun gertacari  
hetarie zenbeit hemen aipha.

Igonen, serora belch batec escu escuineco erhi bateco hezurra usteldua zuen. Bederatziurrun bat egiten dio Aita Garicoitzi eta horra non bet-betan haren erhi hila, belztua eta ziri bat bezen gogorra ematzen den eta zuflatzen; hartzen du lehengo colorea.

Mauleco comentuan, serora dominicano bat, izialdura baten ondotic, osoki erhotu zen: bazter guziac chehatu nahi zituen eta itchura guzien arabera debruac hartua zen. Buruaren gainean ezartzen diote Aita Garicoitzen *erlekia* zerbeit eta berehala eztitzen da, eta berriz heldu zaio osagarria eta adimendua.

Moneinen, hogoi urthetaco nechcato bat, Maria Mirassou, hartu zuen bere gisaco gaitz ikharragarri batec; zainac asaldatzen zitzaizcon, iduri erortzeco mina zuela; nor nahi izituco zuen orduan, dio medicuac, eta iduri zuen bai errabiatua, bai burutic yõana. Buelta gaichto hec zituenean, berac zion hamahirur debru lotuac izaiten zituela; yauzi batzu egiten zituen ezin sinhetsiac, bai eta garrasi batzu erdiragarriac; zer nahi blasfemio erasten zuen.

Eremaiten dute Lurderat; bainan ez da haren errabia gehiago phitzen baizic; aurdikitzen du indar handirekin miraculuzco uretic betheric escaintzen dioten basoa, eta aldiz edaten du errecaco uretic. Etcheracoan, sarrarazten dute Betharrameco elizan; bainan hura bethi bardin.

Arrosorio saltzale baten boticaren aintzinean iragaitean, gelditzen da eta luzaz Aita Garicoitzen potret bati so egoiten. Hori ikhusiric, haren lagunec egiten dute behar dutela ereman Aita Garicoitzen hobiaren gainera. Hobiaren ondora dene-co, brastaco indar pare gabe batekin bere burua aurdikitzen du hobico harriaren gainerat. Eta gero casic berehala chutitzen da eta goraki erraiten du: sendatua naiz. Calbariotic yautsi eta galdegiten du cofesatzea eta cominiatzea; yendez leher bildu zen, zer gertatu zen entzunic eta

guzieri, eliza athe aintzinean, eracusten diote Aita Garicoitzen potreta, bozic errepicatzen duelaric: « Horra ni sendatu nauena ».

Holaco gauzac ardura gertatzen dire, eta Eliza hauzia hasiz gerostic hainbertze izan da, non heyen ichtoria, galdea izanic, Erromarat igorri baitute chehetasun guziekin.

Nola ascotan Erromarat yoan behar izan baitzuten Betharrameco buruzagiec beren Congregacioneco goitibeheitientzat, Aita Garicoitzen *bizia*, Aita Bourdenec M<sup>gr</sup> Lacroix yaun Aphez picuaren baiarekin egina, escuetarat eman izan zioten bai zenbait Cardinaleri, bai bertze zenbeit gizon argitu eta yakintsuneri. Bizi hura iracurtzearekin, loriaz choratu bezala ziren eta garbiki erran zuten, baldin Aita Garicoitzen *bizian* condatuac zirenac egia baziren, bazela han arrazoinic aski *Saindu hauzia* hasteco.

M<sup>gr</sup> Lacroix, yaun Aphezpicua, hil zen eta haren ondotic Bayonaco Aphezpicu izan zen M<sup>gr</sup> Ducellier. Bere diosesarat heldu orduco, hau ere ohartu zen Aita Garicoitzec saindu fama handia zuela. Ahal bezen yakintsun egiten da haren biziaz, obrez, bertutez: laster bertzeri bezenbat seguric iduritzen zaio Aita Garicoitz saindua dela eta bere behar ordu minenetan hasten da haren othoizten; azkenecotz dudaric gehiago ez du; bere buruarekin egiten du Yaincoac segurki Aita Garicoitz gure dedboretaco aphezeri etsenplutzat eman nahi izan diotela, iracusteco nola saindutzen den egun guzietaco eginbideri ongi yarraikiz; eta 1886<sup>an</sup> Aboztuaren 5<sup>an</sup> manamendu bat egiten du, Diosesaco Aphezpicuac *saindu famaz* egin behar duen hauzia edo chercua Aita Garicoitzeri buruz egiteco.

Aita Garicoitz ezagutu zuten guziac, haren biziaz, sendimenduez, obrez, lecuco gisa zerbeit erran zezaketen guziac deituac ziren zakitenaren erraiterat yuramentuaren azpian yaun Apherespicuac hautatu aphez bilcura baten aintzinean.

Aphez bilcura haren lanac iraun zuen bortz urthe; arte hartan Bayonaco diosesac galdu zituen bi aphezpicu.

Saindu famaz egin den hauzia edo chercua hasi zuen Mgr Ducellierec, segitu Mgr Fleury-Hottoc;



bainan ez da akhabatu Mgr Jauffret, oraico yaun Aphezpicuaren denboran baizic; eta hunec igorri izan du Erromarat 1893<sup>co</sup> Maiatzean Aita Gari-

coitzeri oraino ohore publicoric saindu bezala emaiten ez zitziolaco lecucotasunarekin batean.

Diosesaco hauzi hori hainitz artharekin eta zuhurtziarekin egina izan zen. Erroman ez zuten deus erraitecoric causitu; bertzalde Erroman, Aita Garicoitzen icheribu guziac hirur laur urthez cheheki miatu ondoan, *deus trabaric ez zela* declaratu zuten, icheribu hetan deus macurric ez zelacotz ez sinhetsi behar diren, ez egin behar diren gauzer buruz.

Azkenecotz 1899<sup>an</sup> Maiatzaren 9<sup>an</sup> galde huni ihardetsi behar izan zuen Erroman holaco gauzac etsaminatzen dituen Cardinale bilcurac; Behar dea sinatu Michel Garicoitz Yaincoaren zerbitzari errespetaagarriaren saindu hauzia hasteco baia eta cargua? Aphez argitu batec, bere eginbidea zuen bezala, argitan ezarri zituen hazcarki contracto arrazoin guziac; bainan bertze aphez yakintsun batec arrazoin hec guziac herrautsi zituen eta Cardinalen bilcurac ihardetsi zuen: *Baietz, baldin Aita Sainduac on hartzen balin bazuen.*

Aita Sainduac onhartu zuen. Maiatzaren 15<sup>an</sup> sinatu zuen aiphatu ageria eta ordutic Michel Garicoitzec ohorezco izen berezi bat badu Elizan: deitua da *Errespetaagarria*, frantsesez Vénérable.

Hola uruski akhabatu dire Michel Garicoitzentzat Elizac, norbeit saindu daitaken ezagutzeco egiten dituen lehen urrhatsac, haren bizia, egintzac, hitzezco edo icheribuzco iracaspeneac chehecheha bilhatuz eta miatuz.

Eta orai zer ohorea ez du Michel Garicoitzec! Escual herrico artzain ttipiaren, bethi aphaltasunean, othoitzari, lanari, obra oner emana bizi izan den aphez lagnoaren izena gizon formatuenean eta erregen izenoren pare da aiphatua. Izen hori ezarria izan da Erromaco zazpi eliza nausien athean eta yadanic mundu guzian hedatua da eta mundu guzian Yaincoa laudatzen dute eta esker-rac bihurtzen diotzate, zeren bere bothere eta

misericordia negurri gabecoaz nahi izan baitu gure denboretan zeruticaco argi bat bezala agertu eta iracutsi Michel Garicoitzen bizia, guzieren ongi ezagutarazteco nola saindu daitaken deus espantagarriric egin gabe, egun guzietaco eginbederi ongi yarraikiz. Eta hori garbiki ikhus dezakete Aita Garicoitzen bizian bai giristino choilec. bai eta ere aphezec.

Bai haur delaric, dio Bayonaco yaun Aphezpicu Mgr Jauffretec, bai gero gazte eta gizon egin, ala munduan ala Yaincoaren zerbitzuan, edo zoin adinetaco, edo zoin estatutaco yenden etsenpluda. Haur, iracasten daucu garbi egoiten eta othoitzaren maithatzen; sehi, nola den nausien gogora egiten; escolier, nola behar zaion lanari debozionea yarraicarazi; bicario, nola behar diren aintzindariac eta chaharrac ohoratu, zenbat kharrekin eta zuhurtziarekin arimac arthatu; seminariotan nausi eta buruzagi, nola behar diren aphezgaiac eracuspén chuchenenez eta garbienez hazi, nola behar den hetan phiztu eta sustatu beren estatu sainduco eginbiden amodioa; cofesor, nola behar den arimetan ezagutu Izpiritu Sainduaren lana; azkenecotz Betharrameco Congregacionearen egile eta lehen buruzagi, nola artzain onac behar duen bere arthaldeaz condu hartu, nola behar duen zaindu bere biziaren irriscuan.


Akhabatzean, laket zaucu hemen ezartzea liburu Sainduetaco hitz batzu, Mgr Lacroix, Bayonaco yaun Aphezpicnac Aita Garicoitzen ehorts egunean, hari buruz errepicatu zituenac : *Yaunac yustu hori bide chuchenetan erabili du, eta bethi begien aintzinean atchiki dio Yaincoaren erresuma; eman izan dio sainduac egiten dituen yakitatea, lan guzietan merezimenduz aberastu du, eta lagundu bere lanen bururat heltzen. Justum deduxit Dominus per vias rectas, et ostendit illi regnum Dei, dedit illi scientiam sanctorum, honestavit illum in laboribus, et complevit labores illius.* (Sap. Ch. x.)


PAU

Imprimerie Catholique, 11, rue de la Préfecture  
G. LESCHER-MOUTOUÉ, IMPRIMEUR

—  
1900







F. V. D.

## OTHOITZ ZOMBEIT

GARICOITZ VENERABLEAK EGINAK

**Huna nun heldu naizen... Ps. 39, v. 8**  
*Héb. c. 10, v. 7.*

O MARIA! huna nun heldu garen: har gaitzazu eta presenta zure seme Jainkoari.

Agur MARIA, etc...

O JESUS ona! huna nun heldu garen; har gaitzazu zure Ama Sainduaren eskuetarik eta zure aitari presenta.

JESUSEN arima, etc...

O AITA ETERNALA! huna nun heldu garen; har gaitzazu zure seme guziz maitearen eskuetarik. Zure amodioari osoki emaiten gira.


Bai, ene Jainkoa, huna nun heldu garen, erresalburik gabe, oraiko eta bethikotz... Zure Ispiritu saindua eta gure buruzagiak direlarik gure gidari, eta Jesus, Maria, gure aingeru onak eta gure patroin sainduak gure beginatzaile.

GURE AITA, etc...

**Jainkoaren nahiaren ezagutzeko eta egiteko Garicoitz venerableak erakatsi bidea**

- 1º Mementoko eginbideak khartsukiago egin;
- 2º Atchikimendu desordonatu guzier ukho egin.
- 3º Jesu Christo Gure Jaunaren hobeki imitatzeari ar;
- 4º Othoitz egin;
- 5º Gure burua examina;
- 6º Gure gora-beherak behar denari erran;
- 7º Eta, gure aldetik, obedi ordu beretik, osoki, dolutzerik gabe, eta zer nahi arrazoinez baino lehen amodioz.

Huna nun heldu naizen, o ene Jainkoa! orai beretik, osoki, eta dolutzerik gabe.



BETHARRAMENGO BICHTA Y GENERALA